

# Gas argia



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**H**amar urte pasa dira bikote harreman hori bukatu nuenetik. Ordu tik, zauria berriro irekitzen den bakoitzean –eta maiz irekitzen da, tipo horrek maskulinitate berrien esparruan lan egiten baitu– zurrunbilo berbera berpizten da nire baitan: bizi izan nuen horri indarkeria psikologikoa deitu ahal zaio? Hortaz, maite izan nuen gizon profeminista hori erasotzaile matxista dela esan dezaket? Zuzena da harremana apurtu ondoren beraren jokabideei jazarpena eta intimidazioa ezizenak jartzea? Indarkeria izan bazen, nire burua biktimatzat hartu behar dut? Ez dira horiek guztiak hitz potoloegiak, pisutsuegiak?

Denborarekin, erosoago ahoskatu ditzakedan kontzeptuak deskubritu ditut. Abusu emozionala izan zen, bai, duda barik. Botere harreman oso desorekatu batean errotutakoa: ni emakume gaztea, mutil-laguna hamahiru urte zaharragoa, eskarmentu handikoa ni jaioberri nintzen esparruetan, feminismoa barne.

Beste kontzeptu bat, gas argien indarkeria: “Abusotzailea beste pertsonaren errealitatearen pertzepzioa aldatzen eta bere autokonfiantza murrizten saiatzen da, bere oroimena edo zuhurtzia zalantzan jarriz eta ezegonkortasun emozio-

nala eraginez”. Beatriz Villanuevaren artikulua *Pikara Magazine*n irakurtzerakoan identifikatu nuen bizitakoa eta egun ere bizi dudana. Hain zuzen ere, nire egia etengabe zalantzan jartzea da gas argien indarkeria bizi izanaren ondorioa.

Tania Martinez Portugal politologoak urteak daramatza esparru aktibistetan ematen diren indarkeria matxistak ikeritzen. Master amaierako lana eta doktoretza tesia publikatu ditu gai horren bueltan, eta muina abusu matxistak bizi izan dituzten emakume militanteen testigantzak izan dira, nirea barne. 2013an egin zidan elkarrizketan esan nuen kostatzen zitzaidala bizitakoa indarkeria gisa definitzea, agian egokiagoa zela harreman toxiko gisa definitzea. “Badirudi gizon batek diskurtso politiko aurrerakoia eta profeminista eta militantzian ibilbidea badu, ezin dela tratatu txarren emalea izan. Ideia horrek erasotzaileak identifikatzea eta harremana indarkeria sexista gisa deskribatzea oztopatzen du eta indarkeriari buruzko kontakizuna gezurtatzeko eta deslegitimizatzeko erabil daiteke”, ondorioztatu du politologoak.

Baina narratibek “erasotzaile politikoki zuzenek” partekatzen dituzten praktikak agerian uzten dituzte: gas ar-

gien indarkeria, sexualitatea kontrolatzeko grina eta jeloskortasun-eszenak egiteko joera, heldukeria, aitakeria eta aitapontekotza, besteak beste. Harremana bukatzen denean, emakumeek beraien ospea kaltetu ahal dutela beldur direnean, modu sotiletatik eraso bortitzetarako saltoa ematen dute erasotzaile hauek.

Amaia Lekunberrik ARGIAN egin zion elkarrizketan, zera esaten du Martinez Portugalek: “Erasoa jasan dugun emakumeok geure kabuz bilatu behar izan dugu erreparazio modua. Geure osasuna, denbora eta energia inbertitu behar izan ditugu ongizatea lortzeko. Eta taldeek eman dituzten erantzunak oso kaxkarrak izan dira orokorrean. Baina geroz eta kontzientziario handiagoa dago. Espero dezagun gauzak mahaigaineratu ahala aldaketak ematea”.

Komunikazioa ogibide eta bokazio dudan aldetik, nik bizitakoa eta ikasitakoa kontatzea da egin dezakedan ekarpena, eta horrek ematen dit erreparazio puntu bat. Zurrunbiloa ez da desageritu. Erantzun kolektiboak agertu dira. Aldaketen seinale, espero dut. Eta, tira, zauria sendatzen denbora eta energia gutxiago inbertituko dudana esperantza daukat. ●